


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,4 jaitsi ziren 2008ko abenduan aurreko hilaren aldean

2008. urte osoan %5,9 igo dira eraikuntzako kostuak

2008ko abenduan, eta azaroarekin alderatuta, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,4 jaitsi zen EUSTATEN datuen arabera. 2008. urte osoko tasak %5,9eko igoera izan zuen 2007ko abenduaren aldean.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2008



Iturria: EUSTAT

Urte arteko aldian (2007ko abendutik, 2008ko abendura), lan-eskuaren kostua %6,3 handitu da eta lehengaien kostuak, berriz, %5,7.

Abenduan Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera ezberdina izan zuten lehengaien kostuari dagokionez, aurreko hilaren aldean. Eraikuntzaren atalean aldaketarik ez (%0,0) eta Obra Zibilaren atalean lehengaien kostuak %-2,5 jaitsi ziren. Azpisektore bien urteko bilakaeran ikusten denez, biek gora egin dute baina indar ezberdinez: Eraikuntzako lehengaien kostuak %6,6 hazi ziren, eta Obra zibilekoak, berriz, %2,3.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, 2008an hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: Energia elektrikoa eta gasa (%14,4), Metalezko eta ez-metalezko meak (%13,1), Ura (%11,4) eta Industria kimikoa (%6,8). Aitzitik, urteko prezioetan (2008ko abendua, 2007ko abenduaren aldean) murrizketak izan dituzte Petrolioa fintzearen (%-21,6), eta Material elektronikoaren (%-3,2) lehengaiak.

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE. Datu aurrerapena. 2008ko abendua.

GOIBURUAK	INDIZEA 2005= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	116,5	-0,4	5,9	5,9
ERAIKINAK	116,9	0,0	6,5	6,5
OBRA ZIBILA	114,7	-1,8	3,3	3,3
LEHENGAIEN KOSTUA	116,4	-0,5	5,7	5,7
ERAIKINAK	117,0	0,0	6,6	6,6
OBRA ZIBILA	114,0	-2,5	2,3	2,3
LAN-ESKUAREN KOSTUA	116,6	0,0	6,3	6,3

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp